

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

274/2019 Foru Agindua, urriaren 22koa, hasierako onespena ematen diona “Bergonda (BTA Entrambasaguas) izeneko erdi tentsioko airetiko linea elektrikoaren erreforma” proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari –Fresnedako 850 zenbakiko euskarriaren eta Estuliz eta Caranca arteko transformazio zentroyen artean-, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk sustatua Gaubeako lurzoru urbanizaezinean

Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk Gaubeako Udalari obra baimena eskatu dio “Bergonda (BTA Entrambasaguas) izeneko erdi tentsioko airetiko linea elektrikoaren erreforma” proiektua eraikitzeke Fresnedako 850 zenbakiko euskarriaren eta Estuliz eta Caranca arteko transformazio zentroyen artean, Gaubeako lurzoru urbanizaezinean.

Gaubeako Udalak proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Honekin batera doa udal arkitektoak egindako txostena, non jasotzen baita, besteak beste, proiektuaren trazadura lurzoru urbanizaezinetik doala eta zeharkatzen dituela A4 zona - Nekazaritzakoa erkidea, A-2 zona - Erabilera mugatuko nekazaritzakoa, S1 zona - baso eta artzaintzarakoa eta V1 zona - Bide komunikazioen babesekoa, udalerriko indarreko arau subsidiarioetan aurreikusitakoarekin bat etorritz, eta zona guztietan dagoela baimena erabilera publikoko eta interes sozialeko instalazioak eta azpiegiturak jartzeko, araudi horren 164. artikuluan arabera.

Gaubeako Udalari eskatzen zaio Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk aurkeztutako proiektu teknikoa aurkezteko, hura baita proiektuaren sustatzailea, eta 2019ko urriaren 14an bidaltzen du. Proiektu horretan jasotzen da haren xedea dela hornidura elektrikoa hobetzea Fresneda, Estuliz eta Caranca artean, Bergonda (BTA Entrambasaguas) izeneko 476021 zenbakiko 13,2-20 kV-ko erdi tentsioko linea elektrikoa erreformatuz, hain zuzen, eroalea aldatzea sekzio handi-goko beste batekin, kentzea isolamendu gogorreko zur eta hormigoizko euskarriak eta jartzea hormigoizko edo metalezko euskarri berriak gurutzeta metaliko eta isolamendu polimerikoarekin, eta aluminio-altzairuzko kable biluzi berria. Aldatu beharreko tartea 3.736 metrokoa da, 850 zenbakiko eta 908 zenbakiko euskarrien artean, Carancarako saihezbidea barne. Eroale berria 47-AL 1/8-ST1A aluminio-altzairuzko kable biluzia izango da tarte osoan.

ONINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente eabazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean “ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzekoa den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren eabazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, alde aurretik hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta”.

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea “Bergonda (BTA Entrambasaguas) izeneko erdi tentsioko airetiko linea elektrikoaren erreforma” proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari –Fresnedako 850 zenbakiko euskarriaren eta Estuliz eta Caranca arteko transformazio zentroen artean-, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk sustatua Gaubeako lurzoru urbanizaezinean.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeitun egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO